BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4521

AGINDUA, 2012ko urriaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeko bokala eta idazkaria izendatzen dituena.

Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordea sortzeko eta arautzeko den abuztuaren 21eko 161/2012 Dekretuaren 3.a) artikuluak dioenez, unibertsitate-arloan eskumena duen saileko burua edo hark izendatutako ordezkoa izango da aholku-batzordeko lehendakari. Artikulu horren b) letrak dioenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izenean bokal bat izango da batzordean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak izendatua. f) letrak dioenez, ordea, idazkaria unibertsitate-arloan eskumena duen sailburuordetzako funtzionarioen artean hautatuko du lehendakariak.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Unibertsitateetako zuzendari Zuriñe Gómez de Balugera López de Alda andrea izendatzea Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeko bokal, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak hala hautaturik.

2. artikulua.– Unibertsitate arloko arduradun María Eugenia Santos Urdiain andrea izendatzea Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeko idazkari, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak hala hautaturik.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urriaren 1a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.